

EBAZPENA, 2022ko APIRILAREN 20koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, UPV/EHUren BARNE-ESPAZIOETAN MASKARAK ERABILTZEARI BURUZKOA, APIRILAREN 19ko 286/2022 ERREGE DEKRETUA ARGITARATU ONDOREN. DEKRETU HORREN BIDEZ, COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAN MASKARAK ERABILTZEKO DERRIGORTASUNA ALDATZEN DA.

2022ko apirilaren 20an BOEn argitaratu da COVID-19ak eragindako osasun-krisian maskarak erabiltzeko derrigortasuna aldatzen duen 286/2022 Errege Dekretua.

Errege Dekretuaren testuaren arabera, COVID-19aren epidemiaren bilakaera onak, lortutako txertaketa-estaldurek eta SARS-CoV-2aren transmisioa kontrolatzeko neurri ez-farmakologikoen aplikazioak lagunduta, epidemia kontrolatzeko estrategietan aldaketak planteatzea ahalbidetu du.

Horri dagokionez, Errege Dekretu horrek ezartzen du maskarak erabiltzea ez dela derrigorrezkoa izango oro har.

Hala ere, maskarak erabiltzea derrigorrezkoa izango da oraindik testuinguru jakin batzuetan, eta hainbat egoeratan erabiltzea gomendatzen da, batez ere kalteberatasun bereziko pertsona eta inguruneekin lotuta. Gainera, gomendatzen da maskara arduraz erabiltzea pertsonak ibiltzen diren edo denbora luzez egoten diren erabilera publikoko espazio itxietan. Era berean, ekitaldi jendetsuetan maskara arduraz erabiltzea gomendatzen da.

Errege Dekretu horrek azalpen zatian adierazten duenez, lan-ingurunean, laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuek, lanpostuen lan-arriskuen balorazioaren arabera, zehaztuko dute maskara erabiliko duten lantokian, kasu bakoitzean aplikatzekoa den laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideei jarraituz.

Azaldutako guztia kontuan hartuta eta UPV/EHUko barruko espazioetan maskarak erabiltzeari buruzko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren txostena jaso ondoren, Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Oro har derrigorrezkoa ez bada ere, gomendagarria da maskarak arduraz erabiltzea UPV/EHUren barneko espazioetan, gutxienez 2021/2022 unibertsitate-ikasturtea amaitu arte. Horregatik, gomendatzen da maskara erabilera partekatuko unibertsitate-instalazioen barruko espazioetan erabiltzea, osasun-segurtasuneko distantzia eta aireztapen egokia bermatu ezin direnean.

Bigarrena.- Barruko lokalak eta bulegoak aireztatzeko indarrean dauden protokoloak eta higienari buruzko neurriak mantenduko dira.

Hirugarrena.- Era berean, Errege Dekretuaren espirituarekin eta edukiarekin bat etorritik, UPV/EHUko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua:

- COVID-19arekiko kalteberatasun-faktoreak dituzten pertsonentzako prebentzio-neurrien jarraipen zorrotza egiten jarraituko du, zehazki, baita maskararen erabilerari dagokionez ere.
- Osasun-agintariak laster emango dituzten jarraibideen arabera eta argitaratutako araudiaren arabera, dagokion balorazioaren arabera, lanpostu, funtzio edo egoera pertsonal jakin batzuetan maskara erabiltzea erabaki ahal izango du, kasu bakoitzean aplikatu beharreko lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideei jarraituz.

Laugarrena.- Aipatutako neurrien edukia eta irismena Campua arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean kontsultatu eta parte hartuko da.

Bosgarrena.- Ebazpen hau argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Leioa, 2022ko apirilaren 20a

Sin.: Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko gerentea